

ARRASATEKO 2026ko EGUTEGIA EGITEKO III. ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

ANTOLATZAILEAK:

ARRASATEKO UDALA eta ARTGAZKI argazkilari elkartearen arteko lankidetzeta.

HELBURUA:

2026ko egutegia osatuko duten Arrasateko argazkiak hautatzeko lehiaketa deitzea.

PARTE-HARTZAILEAK:

Arrasaten jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek, herrikoek zein kanpokoek, izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

GAIA:

Argazkiek ez dute gai konkretu baten ingurukoak izan beharko, baina hauek Arrasaten egindakoak izan beharko dute, 2024ko urritik 2025eko urriaren 15era bitartean. Halaber, positiboki baloratuko dira auzoetako argazkiak, edota Arrasateko aniztasuna islatzen duten argazkiak.

ARGAZKIAK:

Argazkiak horizontalak izan beharko dira, eta irudien erresoluzioa 250 ppp-koa izan beharko da. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira eta A4 neurri minimoa izan beharko du. Gailu mugikorrez ateratako argazkiak ere onartuko dira.

Argazkiak Arrasaten kokatuak izan behar dute, eta argazki bakoitzaren kokapen zehatza adierazi beharko da.

Lanak originalak izan behar dute. Lehiakideak izango dira aurkeztu dituzten obren erantzule, baita lanaren gain hirugarrengeok aurkez lezaketen edozein erreklamazioren aurrean ere, hala nola, egiletzari, irudi eskubideei, originaltasunari, antzekotasunari, kopiari, etab., dagozkienak.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira bereizkeria, arrazakeria, homofobia, indarkeria edo sexismoa iradokitzen duen argazki oro. Epaimahaiak baztertu egingo ditu manipulazioa jasan duten argazkiak, hala nola, irudiaren elementu bisualak gehitzea, kentzea edo lekualdatzea. Halaber, epaimahaiak eskubidea du beharrezkotzat jotzen duen argazkiren bat kentzeko, betiere behar bezala justifikatuta.

LAN KOPURUA:

Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Sei argazki aurkezteko aukera egon arren, gehienez ere, pertsona bakoitzeko 2 argazki sarituko dira. Guztiak batera bidali beharko dira, ondoren aipatuko diren epeetan.

LANEN AURKEZPENA:

Lanak emailez aurkeztuko dira, gutxieneko A4 tamainarekin eta 250 ppp-ko erresoluzioarekin. Argazki bakoitza herriko zein lekutan eta noiz egindakoa den zehaztu beharko da. Argazkietan, lehenengo edo erdiko planoan, pertsona horren baimen esplizitua duela suposatzen da eta egileak izango du erantzukizuna erreklamazioren baten aurrean.

LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:

Argazkiak 2025eko urriaren 1etik 15era aurkeztu beharko dira, biak barne. Mezu elektronikoko bidez bidali beharko dira **egutegia@arrasate.eus** helbidera, gaian "Egutegirako argazki lehiaketa" adieraziz. Mezuan ondorengo datuak agertu beharko dira: egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, eta argazkiaren lekua eta data).

SARIAK:

Epaimahaiak hamahiru argazki aukeratuko ditu, hilabete bakoitzeko bat eta portadako argazkia izango dira. Irabazleek herriko komertzioetan gastatzeko 150 euroko bonoa jasoko dute. Argazkiaren kalitateaz gain, egutegiari koherentzia eta gorputza emateko irizpideak ere hartuko dira kontuan.

SARITUTAKO ARGAZKIEN ERABILERA:

Saritutako argazkiek 2026ko Arrasateko Egutegia osatuko dute. Arrasateko Udalak argazki sarituak nahi dituen helburu guztietarako erabili ahal izango ditu, eta, hala, argazkiok nahi bezala egokitu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen formatu eta euskarri guztietan erabili ahal izateko, horretarako egileari inolako baimenik eskatzeko beharrik izan gabe.

EPAIMAHAIA:

Epaimahaia 6 kidek osatuko dute: Arrasateko Udaleko 2 ordezkari, Artgazki elkarteko 2 ordezkari, Ibai Arteko ordezkari bat eta Arrasateko ostalarien taldeko ordezkari batek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketara aurkezten diren argazkiek egutegirako eskatzen den adinako kalitaterik ez badute, antolatzaileek 2026ko egutegirako udal artxiboan dauden argazkiak argitaratzeko eskubidea izango dute, edo dagoeneko bi argazkirekin sarituak izan diren parte-hartzaileei proposatzea, beste bat gehitzea, sari berri baten ordainik gabe.

SARI BANAKETA:

Sariak egutegia aurkeztuko den egun berean banatuko dira. Ezinbestekoa izango da saritua edo ordezkoren bat sari banaketa ekitaldira bertaratzea.

IRABAZLEEN BERRI EMATEA:

Arrasateko Udalaren webgunean eta hedabideetan irabazleen berri emango da.

OINARRIAK ONARTZEA:

Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.

BASES DEL III CONCURSO DE FOTOGRAFÍA PARA EL CALENDARIO 2026 DE ARRASATE

ORGANIZAN:

Colaboración entre el AYUNTAMIENTO DE ARRASATE y la asociación fotográfica ARTGAZKI.

OBJETIVO:

Concurso para elegir las fotografías de Arrasate que formarán el calendario de 2026.

PARTICIPANTES:

Podrán participar en este concurso las personas que residan, estudien, trabajen o hayan nacido en Arrasate. La edad mínima de participación será de 16 años.

TEMA:

Las fotografías no tendrán que estar relacionadas con un tema concreto, pero sí deberán estar hechas en Arrasate, entre octubre de 2024 y el 15 de octubre de 2025. Asimismo, se valorarán positivamente las fotografías de los barrios, así como aquellas que reflejen la diversidad de Arrasate.

FOTOGRAFÍAS:

Las fotografías deberán ser horizontales y la resolución de las imágenes será de 250 ppp. Las fotografías deberán presentarse en formato JPG y tener una medida mínima de A4. También se admitirán fotografías tomadas con dispositivos móviles.

Las fotografías deben estar localizadas en Arrasate, por lo que se requiere señalar la localización concreta de cada imagen.

Las fotografías que se presenten deberán ser originales. Las y los participantes se harán totalmente responsables de las obras presentadas frente a las reclamaciones que pudieran surgir de cualquier naturaleza presentadas por terceras personas relativas a autoría, derechos de imagen, originalidad, parecidos, copias...

Quedarán excluidas del concurso todas aquellas fotografías que sugieran discriminación, racismo, homofobia, violencia o sexismo. El tribunal descartará las fotografías que hayan sido objeto de manipulación, tales como añadir, suprimir o desplazar elementos visuales de la imagen. Asimismo, el tribunal se reserva el derecho a retirar alguna fotografía que considere necesaria, siempre que esté debidamente justificada.

NÚMERO DE FOTOS A PRESENTAR:

Cada participante, como máximo, podrá presentar 6 fotografías. En todo caso, como máximo, se premiarán 2 obras por cada participante. Deberán enviarse conjuntamente en los plazos que se indican más abajo.

PRESENTACIÓN:

Los trabajos se presentarán vía email, con un tamaño mínimo de A4 y una resolución de 250 ppp. Deberá especificarse el lugar concreto y el momento en los que se ha realizado la fotografía. En el caso de que aparezca alguna persona en primer plano o en el plano central de la fotografía, se presupone que cuenta con el consentimiento explícito de esta persona, y el autor o autora de la fotografía asumirá la responsabilidad ante una posible reclamación.

LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS FOTOS:

Las fotografías deberán presentarse del 1 al 15 de octubre de 2025, ambos inclusive. Se enviarán vía mensaje electrónico a la dirección **egutegia@arrasate.eus** indicando en el asunto "Egutegirako argazki lehiaketa". En el mensaje deberán figurar los datos del autor (nombre y apellidos, dirección, número de teléfono y lugar y fecha de la fotografía).

PREMIOS:

El jurado elegirá trece fotografías, que serán una por mes del calendario y la foto de portada. Las y los ganadores recibirán un bono de 150 euros para gastar en los comercios de la localidad. Además de la calidad de la fotografía, se tendrán en cuenta criterios para dar coherencia y cuerpo al calendario.

UTILIZACIÓN DE LAS FOTOGRAFÍAS PREMIADAS:

Las fotos premiadas conformarán el calendario de 2026 de Arrasate. El Ayuntamiento podrá utilizar las fotografías premiadas con el fin que considere pertinente, y podrá adaptar las fotografías para poder utilizarlas en todo formato o soporte que considere adecuado, sin necesidad de solicitar autorización previa al autor o autora de la misma.

JURADO:

El jurado estará compuesto por 6 miembros: 2 representantes del Ayuntamiento de Arrasate, 2 representantes de la asociación Artgazki, un representante de Ibai Arte y un representante de hosteleros de Arrasate. La decisión del jurado será inapelable.

En el caso de que las fotografías presentadas a concurso no alcancen la calidad necesaria para ser publicadas este calendario, la organización podrá publicar para el calendario de 2026 fotografías existentes en el archivo municipal, o proponer a participantes ya premiados con el máximo de dos fotografías, añadir una más, sin compensación de un nuevo premio.

REPARTO DE PREMIOS:

Se realizará el mismo día de la presentación del calendario. Será imprescindible la presencia de la persona ganadora o su representante en el acto de reparto de premios.

COMUNICACIÓN RELATIVA A LOS PREMIOS:

La comunicación acerca de las personas premiadas se realizará a través de la página web del Ayuntamiento de Arrasate y los medios de comunicación.

APROBACIÓN DE LAS BASES:

Para poder participar en el concurso es necesaria la aceptación de lo establecido en las presentes bases.